

BESTELAKO XEDAPENAK

LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA

4566

AGINDUA, 2021eko uztailaren 20koa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, zeinaren bidez baimena ematen baita, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 80. artikuluan eta Hirigintzako Estandarrei buruzko uztailaren 3ko 123/2012 Dekretuaren 15. artikuluan aurreikusitako prozeduraren arabera, babes publikoko etxebizitzaren gutxieneko estandarrak osorik betetzeko, Donostiako Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko «IB.12 Illarra» eremuaren eta «AY.18 Munto» eremuaren (Villa Ereski partzela) arteko etxebizitzaren transferentzia eginez.

Aztertu da Donostiako Udalak egindako baimen-eskaera, udalerriko hainbat eremutan babes publikoko bizitegi-erabilerako hirigintza-eraikigarritasuna exekutatzeari buruzko lege-aurreikuspena konpentsatzekoa. Izan ere, zenbait eremutan murriztutako estandarra beste eremu zehatz batzuetan sartutakoarekin osatzen da.

GERTAKARIAK

Donostiako Udalak aurkeztutako eskaera-orriari sarrera-erregistroa egin zitzaion 2021eko ekainaren 30ean. Haren bidez, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 80.7 artikuluan aurreikusitako baimena eskatu zen, Hiri Antolamenduko Plan Orokorrearen baitan babes publikoko etxebizitzaren estandarra transferitzeko zenbait eremuren artean.

Ezarritako prozedurarekin bat etorritik, Donostiako Hiri Antolamenduko Plan Orokorrearen Aldaketa Puntualaren espedienteak, behin betiko onartua izan aurretik, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordearen Gipuzkoako hirigintza-plangintzarako atalaren aldeko txostena jaso zuen 2021eko uztailaren 14ko bilkuran (zenbakia: 5/2021).

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.– Sail hau eskuduna da aztertzen den espedientea ebazteko, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 80.7 artikuluan eta Hirigintzako Estandarrei buruzko uztailaren 3ko 123/2012 Dekretuak 15.1 artikuluan xedatutakoari jarraituz.

2.– Aurkeztutako eskaerak babes publikoko etxebizitzetarako lurzoru-estandarraren konpentsazioa planteatzen du udalerraren «IB.12 Illarra» eta «AY.18 Munto (Villa Ereski partzela)» eremuen baitan. Horrela, Villa Ereskiko partzelan planteatutako bizitegi-eraikigarritasunaren gehikuntzari dagokion sabai babestuaren zenbatekoa «IB.12 Illarra» eremuan programatuta dagoen gehiegizko eraikigarritasun babestuekin konpentsatuko da.

3.– Donostiako Hiri Antolamenduko Plan Orokorrearen Aldaketa Puntualak bizitegi-eraikigarritasuna 25.787 m²t handitzea planteatzen du «IB.12 Illarra» eremuan, eta 3.840 m²t «Villa Ereski» partzelan, halako moldez non babes publikoko araubideren bati atxikitako gutxieneko zenbatekoak 11.850 m²t izango dira, eta babes sozialeko etxebizitzaren gutxieneko zenbatekoa 5.925 m²t-koa izango da; eta gainerakoa, 11.825 m²t-ra artekoa, etxebizitza tasatuentzat.

Donostiako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren Aldaketa Puntualaren arabera, 8.075 m²t dira babes sozialeko etxebizitzentzat eta 3.775 m²t etxebizitza tasatuentzat.

4.– Hirigintzako Estandarrei buruzko uztailaren 3ko 123/2012 Dekretuaren 14.4 artikulua arabera, egitura-antolamenduaren aldaketa puntualetan, transferentzia hori egiteko bermatu behar da alde aurretik edo aldi berean gauzatuko dela transferitutako estandarra, edo, bestela, Udal Administrazioak onetsi behar du –interesdunek eskatuta– Udal Lurzoru Ondarean sartzea; horrenbestez, dagokion konpentsazioa jasoko du, osorik edo partzialki salbuetsitako eremuko eraikigarritasunaren zati bat eskuratuta, edo dagokion balio ekonomikoa jasoko du, aipatutako dekretuaren 5. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea, Hirigintzako Estandarrei buruzko uztailaren 3ko 123/2012 Dekretua eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak egindako aldeko txostena aztertuta, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearekin eta Hirigintzako Estandarrei buruzko uztailaren 3ko 123/2012 Dekretuarekin bat etorrira, aipatutako legearen 80.7 artikuluan eta aipatutako dekretuaren 15. artikuluan aurreikusitako etxebizitza-transferentzia baimentzea, Donostiako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren Aldaketa Puntualean.

Bigarrena.– Baimena emateko baldintza da Donostiako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren Aldaketa Puntualaren testuan eranstea espediente bete izanaren justifikazioa, 2/2006 Legearen 80. artikulua eta 123/2012 Dekretuaren 14. eta 15. artikuluen arabera.

Hirugarrena.– Aurreko apartatuetan ezarritako baldintzetan ematen da baimena, eta ez du baliorik izango baldin eta behin betiko onarpena, babes publikoko etxebizitzaren gutxieneko estandarrek betetzeari dagokionez, beste baldintza batzuekin ematen bada eta horrek ukitutako eremuren batean (hartzaile zein igorle) aldaketarik eragiten badu.

Laugarrena.– Donostiako Udalarari agindu honen berri ematea.

Agindu hau behin betikoa da, eta administrazio-bidea amaitzen du. Interesdunek administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, agindu hau argitaratu edo, hala badagokio, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Halaber, nahi izanez gero eta administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri baino lehen, berraztertze errekurtsoa jar dakioko Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuari, hilabeteko epean, agindu hau argitaratu edo, hala badagokio, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Kasu horretan, ezin izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri, berraztertze errekurtsoa espresuki erabaki arte edo ustez ezetsi arte.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko uztailaren 20a.

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburua,
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.